



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 11

51. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00002. Foru-lege proposamena, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea aldatzen duena (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-23/MOC-00085. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Korrikaren ospakizunean partikularrek behin eta berriro agertzea zigortutako ETAkideen argazkiak. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).

—11-24/MOC-00011. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita 370/2023 Errege Dekretuaren eranskina alda dezan arantza bifidoa duten pertsonak barne hartzeko, halako moldez non, behar diren betekizunak betez gero, erretiro aurreratuari heltzeko aukera izanen baitute. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).

—11-24/MOC-00030. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hitzarmen Ekonomikoaren Batzorde Koordinatzailearen deialdia hitzar dezan Estatuarekin, 2024, 2025 eta 2026rako defizit-doikuntza adosteko. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00036. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erakundeak oro har eta Nafarroako toki-entitateak bereziki premiatzen baititu adieraz dezaten beharrezkoa dela onestea administrazio publikoen aurrekontu-egonkortasunerako eta zor publikorako helburuak ezartzen zituen akordioa. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

—11-24/MOC-00040. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita landa-eremuetan biblioteka-zerbitzu ibiltaria bultzatzen jarrai dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00033. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako familiak animatzen baititu seme-alabak hezkuntza-sare publikoan matrikulatu ditzaten. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

—11-24/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorearen izaera estrategikoa blinda dezan Nafarroako Foru Komunitatean. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-23/PES-00234. Galdera, lagun egiteko animalien harrera-zentroen kudeaketa-ereduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-23/PES-00235. Galdera, Nafarroako Gobernuako Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa-sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-23/PES-00236. Galdera, Nafarroako Gobernuako Animaliak Babesteko Zentroan katurik ez jasotzeko arrazoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-23/PES-00237. Galdera, erregistratutako elkarte eta entitate laguntzaileek Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-23/PES-00238. Galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko Foru Legeari buruzko herritarrendako gidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-23/PES-00239. Galdera, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioko 4. neurriari buruzkoa (Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bitartez gazteen arloko politikak garatzeko behar besteko finantzaketa baten alde egitea). Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-23/PES-00240. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeko ardura-dunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-23/PES-00241. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea betetze aldera Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-23/PES-00242. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-23/PES-00243. Galdera, txosten soziometrikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/CIE-00001. Pandemian zehar maskarak eta osasun-materiala erosteari eta banatzeari buruzko ikerketa-batzordea. Osoko Bilkurak ezetsi du (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00002. Foru-lege proposamena, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, ezetsi zuen Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena zuzenean eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/MOC-00085. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Korrikaren ospakizunean partikularrek behin eta berriro agertzea zigortutako ETAkideen argazkiak

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko martxoaren 21ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Korrikaren ospakizunean partikularrek behin eta berriro agertzea zigortutako ETAkideen argazkiak. Erabakia eragin zuen mozioa Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuen, eta 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Korrikaren ospakizunean partikularrek behin eta berriro agertzea zigortutako ETAkideen argazkiak. Izan ere, gertaera hori, haien zuzeneko biktimentzat umiliazioa izateaz gain, indarkeria terrorista pairatu zuen nafar gizarte osoarentzat umiliazio onartezina ere bada.

Nafarroako Parlamentuak euskara Nafarroaren kultur ondare kolektibo gisa deklaratzeko eta edozein sektore edo erakunde politikoren jabetze-edo manipulazio-ahalegin oro arbuiatzen du”.

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00011. Erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak pre- miatzen baita 370/2023 Errege Dekretuaren eranskina alda dezan arantza bifidoa duten pertsonak barne hartzeko, halako moldez non, behar diren betekizunak betez gero, erretiro aurrerratuari heltzeko aukera izanen baitute

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko martxoaren 21ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita 370/2023 Errege Dekretuaren eranskina alda dezan arantza bifidoa duten pertsonak barne hartzeko, halako moldez non, behar diren betekizunak betez gero, erretiro aurrerratuari heltzeko aukera izanen baitute. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du:

1. 1851/2009 Errege-dekretua aldatzen duen maiatzaren 16ko 370/2023 Errege-dekretuaren eranskina alda dezan –horren bidez, Gizarte-Segurantzaren Lege Orokorraren 161. bis artikulua garatzen da–, ehuneko 45eko desgaitasuna edo hori baino handiagoa duten langileek erretiroa aurreratzeari dagokionez, eta arantza bifidoa sar dezan erretiro aurreratua hartu ahal izatea ahalbidetzen duten gaixotasun neurologikoen artean, baldin eta erretiro aurreratua hartzeko bete beharreko baldintzak betetzen badituzte.

2. 1851/2009 Errege-dekretua aldatzen duen maiatzaren 16ko 370/2023 Errege-dekretuaren eranskina alda dezan –horren bidez, Gizarte-

Segurantzaren Lege Orokorraren 161. bis artikulua garatzen da–, ehuneko 45eko desgaitasuna edo hori baino handiagoa duten langileek erretiroa aurreratzeari dagokionez, eta gaixotasun hauek sar ditzan:

- Artritis erreumatoidea
- Entzefalomielite mialgikoa
- Transtiretina aldakorrak eragindako amiloidosia (ATTRv)
- Huntington-en gaixotasuna
- Parkinson-en gaixotasuna
- 1 motako distrofia miotonikoa (Steinert-en gaixotasuna)
- Fibromialgia
- Immunoeskasia primarioak
- Eritema-lupus sistemikoa
- Esklerosi sistemikoa, eta erretiro aurreratua hartu ahal izatea ahalbidetzen duten beste gaixotasun batzuk, baldin eta gaixoen erretiro aurreratua hartzeko bete beharreko baldintzak betetzen badituzte”.

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00030. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hitzarmen Ekonomikoaren Batzorde Koordinatzailearen deialdia hitzar dezan Estatuarekin, 2024, 2025 eta 2026rako defizit-doikuntza adosteko

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko martxoaren 21ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hitzarmen Ekonomikoaren Batzorde Koordinatzailearen deialdia hitzar dezan Estatuarekin, 2024, 2025 eta 2026rako defizit-doikuntza adosteko. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hitzarmen Ekonomikoa-

ren Batzorde Koordinatzailearen deialdia presaz hitzar dezan Estatuarekin, 2024, 2025 eta 2026rako Nafarroari dagokion defizit-doikuntza adosteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Hitzarmen Ekonomikoaren Batzorde Koordinatzailean planteatzen dezan defizitarren doikuntza ekitatibo bat Nafarroarentzat”.

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00036. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erakundeak oro har eta Nafarroako toki-entitateak bereziki premiatzen baititu adieraz dezaten beharrezkoa dela onestea administrazio publikoen aurrekontu-egonkortasunerako eta zor publikorako helburuak ezartzen zituen akordioa

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko martxoaren 21ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erakundeak oro har eta Nafarroako toki-entitateak bereziki premiatzen baititu adieraz dezaten beharrezkoa dela onestea administrazio publikoen aurrekontu-egonkortasunerako eta zor publikorako helburuak ezartzen zituen akordioa. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak erakundeak oro har eta Nafarroako toki-entitateak bereziki premiatzen ditu adieraz dezaten beharrezkoa zela onestea administrazio publikoen eta azpisektore guztien 2024-2026 aldirako aurrekontu-egonkortasunerako eta zor publikorako helburuak eta Estatuaren 2024rako aurrekontuko gastu ez-finantza-

rioren muga ezartzen zituen akordioa, bai eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan ezarritako berrerekatze-plana Gorte Nagusietara igortzeko akordioa ere.

2. Nafarroako Parlamentuak dio ez dagoela ados akordio hori onetsi ez izanarekin, urratu egin delako, nabarmen urratu ere, interes orokorra, eragotzi egin baita toki-entitateek baliabide gehiago edukitzea politika publikoak ezartzeko herritarren mesedetan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabaki hau Espainiako Senatuari igor diezaion”.

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00040. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita landa-eremuetan biblioteka-zerbitzu ibiltaria bultzatzen jarrai dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko martxoaren 21ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita landa-eremuetan biblioteka-zerbitzu ibiltaria bultzatzen jarrai dezan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du liburutegi-ibiltarien zerbitzuak bultzatzen eta finkatzen jarrai dezan arian-arian, halako moduan non 2030a baino lehen landa-eremuetako herritar guztiek baliatu ahal izan dezaten funtsezko zerbitzu publiko hori”.

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00033. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako familiak animatzen baititu seme-alabak hezkuntza-sare publikoan matrikulatu ditzaten

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, ezetsi du Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako familiak animatzen baititu seme-alabak hezkuntza-

sare publikoan matrikulatu ditzaten. Mozioa 2024ko martxoaren 15eko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorearen izaera estrategikoa blinda dezan Nafarroako Foru Komunitatean

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, ezetsi du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektorearen izaera estrategikoa blinda dezan Nafa-

roako Foru Komunitatean. Mozioa 2024ko martxoaren 19ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00234. Galdera, lagun egiteko animalien harrera-zentroen kudeaketa-ereduari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak lagun egiteko animalien harrera-zentroen kudeaketa-ereduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00234), azken lau urteetan zentro-

etan izandako bilketa eta harreraren inguruan emandako datuei buruz. Hona hemen galdera bera eta Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Kudeaketa-eredurik aztertzen ari al da lagun egiteko animalien abegi-zentro guztietan aplikatzeko?

Lagun egiteko animaliak konfiskatzeari, galtzeari eta abandonatzeari lotutako udal eskumenak kudeatzeko eredu baten proposamena aztertzeke fasean da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00235. Galdera, Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa-sistemari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Nafarroako Gobernuko Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa-sistemari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00235), azken lau urteetan zentroetan izandako bilketa eta harreraren inguruan emandako datuei buruz. Hona hemen galdera bera eta Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Zer kudeaketa-eredu du Nafarroako Gobernu-ko Animaliak Babesteko Zentroak adopzio-datu horiek edukitzeko?

Nafarroako Gobernu-ko Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa animaliak bildu eta hartze-ko esparruan lizitatutako kontratuaren adjudikazioa jaso duen enpresak egiten du, kontratazioaren baldintza-orrietan zehaztutako eskakizunekin bat:

<https://hacienda.navarra.es/sicportal/mto/AnunciosModalidad.aspx?Cod=200205143741CB5A54E8>

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00236. Galdera, Nafarroako Gobernu-ko Animaliak Babesteko Zentroan katurik ez jasotzeko arrazoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Nafarroako Gobernu-ko Animaliak Babesteko Zentroan katurik ez jasotzeko arrazoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00236), azken lau urteetan zentroetan izandako bilketa eta harreraren inguruan emandako datuei buruz. Hona hemen galdera bera eta Landa Garapenerako eta Ingurumeneko

kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernu-ko Animaliak Babesteko Zentroak zergatik ez du katurik hartzen?

Abandonatutako txakurrak eta katuak hartzeko eskumena udalena da (1994ko araudia, gaur egun 19/2019 Legearen bidez aldatua).

Nafarroako Gobernu-ko Animaliak Babesteko Zentroak ez du katurik hartzen Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak sortu zuelako zentroa txakurretan hidatidosia kontrolatzeko, eta alor hori kudeatzen jarraitu zuen udal zentro nahikorik ez zegoelako.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00237. Galdera, erregistratutako elkarte eta entitate laguntzaileek Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak erregistratutako elkarte eta entitate laguntzaileek Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00237), erregistratutako elkarte eta entitate laguntzaileek lagun egiteko animaliak

babesteari buruz. Hona hemen galdera bera eta Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Zer egin behar duzue edo nolako kudeaketa egiteko asmoa duzue erregistratutako elkarte eta entitate laguntzaileek Lagun egiteko animaliak babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea bete dezaten?

Erregistratutako elkarte eta entitate laguntzaileek /2019 Foru Legea betetzen dutela kontrolatuko da Foru Legearen 22. artikuluan eta 94/2022 Foru Dekretuaren 74. artikuluan ezartzen denarekin bat.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00238. Galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko Foru Legeari buruzko herritarrendako gidari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko Foru Legeari buruzko herritarrendako gidari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00238), lagun egiteko animaliak babesteari buruzko foru legeari lotutako herritarrendako gidari buruz. Hona hemen galdera bera eta Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Noiz taxutuko duzue gida hori, eta noiz egonen da herritarren eskura?

Departamentua lanean aritu da gida osatzen, bai eta berorri zabalkundea emateko kanpaina bat prestatzen ere, eta datozen asteetan aurkeztuko da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00239. Galdera, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioko 4. neurriari buruzkoa (Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bitartez gazteen arloko politikak garatzeko behar besteko finantzaketa baten alde egitea)

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioko 4. neurriari (Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bitartez gazteen arloko politikak garatzeko behar besteko finantzaketa baten alde egitea) buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-11-23/00239). Hona hemen galdera horrek dioena:

Nafarroako Gobernuaren ustez, zer da behar besteko finantzaketa? Zehaztu aurreikusten diren diru-kopuruak, urteka.

Eta hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Jotzen da behar besteko finantzaketa dela 2023ko urriaren 23ko agerraldian aurkeztutako askotariko ildo estrategikoak eta NGIk egindako gainerako jarduerak gauzatzeko beharrezko dena.

Zenbateko ekonomiko zehatzak ematen ahalko dira urtero Nafarroako Parlamentuak onetsitako aurrekontua izatean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-23/PES-00240. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeko arduradunari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeko arduradunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin

du –2023ko abenduaren 14ko 3994 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– jakiteko ea zein den NEKPren webgunea eguneratzeaz arduratzen dena (11-23/PES-00240). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SLren Komunikazio Departamentua arduratzen da NEKPren webgunea eguneratzeaz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-23/PES-00241. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea betetze aldera Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea betetze aldera Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López

Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00241) –3997 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan, 2023ko abenduaren 14an– eta honako hau dio:

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea behar bezala betetzeko, noiz eguneratuko da erabat Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea?

Honako hau jakinarazten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Jakinarazten da da NEKPren webguneak bete egiten duela Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea, eta arauaren arabera publizitate aktiboa emateko betebeharraren menpe dagoen informazioa eguneratzen dela bertan ezarritako epeetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-23/PES-00242. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea eguneratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00242) –3998 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan, 2023ko abenduaren 14an–. Hona hemen galdera bera eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Zergatik ez da eguneratu hainbat hilabetetan Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunea, eta, adibidez, gaur egun oraindik ere Cigudosa jaunaren agur instituzional bat ageri da, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren lehendakari gisa eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari gisa, kontuan hartuta 2023ko abuztuaren 20tik ez duela kargu hori betetzen?

Honako hau jakinarazten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Jakinarazten da NEKPren webgunea ez dela eguneratzen utzi hainbat hilabetez. Webgunea

horretan informazio atal ateporalak daude, informazioak eskatzen duenean eguneratzen direnak, eta etengabe eguneratzen diren atalak ere badaude; horietako zenbait, are gehiago, egunero eguneratzen dira. Horien artean, gaurkotasanari buruzkoa, enpleguarena eta hemeroteka.

Egia da Cigudosa jauna oraindik ere agertzen zela erakundeen agurrean 2023ko abenduaren 13ra arte –haren izena eta argakia kendu egin ziren idatzizko galdera hau izapidetu aurreko egunean–, baina gardentasunari eta kontu emateari dagokienez, eduki hori ez da funtsezkotzat jotzen, eta, beraz, ulergarria da hura eguneratzea ez lehenestea Arasti jaunaren zeregin guztien artean, erantzukizuna izan zuen lehenengo asteetan.

Hala ere, Gardentasunari buruzko Foru Legeak eskatzen duenari erantzunez, NEKPren Administrazio Kontseiluaren osaera irailaren 18an eguneratu zen webgunean, Arasti jauna kontseilari delegatu izendatu zen egun berean.

Edonola ere, abenduaren 18an, erakundeen agurra erabat eguneratu da, eta bertan Arasti jaunaren argakia eta izena ageri dira.

Amaitzeko, eta informazio gisa, Cigudosa jauna ez zen inoiz izan NEKPren presidente, kontseilari delegatu baizik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-23/PES-00243. Galdera, txosten soziometrikoei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Jesús Valdemoros Erro andreak txosten soziometrikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Jesús Valdemoro Erro andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-23/PES-00243) –3999 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan, 2023ko abenduaren 14an–. Hona hemen galdera bera eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Kontuan hartuta Nafarroako Zerga Ogasunak argitaratutako azken soziometrikoa duela 4 urtekoa dela, hauxe galdetzen dut:

Egin al da soziometriko eguneratuagorik?

Halakorik egin ez bada, noiz egingen eta argitaratuko duzue? Honako hau jakinarazten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

2023ko apirilean, Nafarroako Foru Ogasunak egindako azken soziometrikoa argitaratu zuen, 2021eko zergaldikoa, alegia.

Honako hau adierazi behar da:

- Zergen estatistikak (soziometrikoak) urtero argitaratzen dira (martxotik ekainera bitarte)

- Informazioaren konparazio homogeneoa egiteko, zergaldi bakoitzeko estatistikak argitaratzen diren datan estatiko mantentzen dira. Datu horiek, orokorrean, “n+2” urteko martxoan eskuratzen dira, “n” izanik estatistikan barne hartzen den zergaldia.

- PFEZ, BEZ, SZ eta OZ zergen estatistikak 2009az geroztik argitaratzen dira.

- 2023ko apirilean, 2021eko zergaldiari dagozkion estatistikak argitaratu ziren.

- Aurreikusten da 2024ko apirilean 2022ko zergaldikoa argitaratzea.

Informazio guztia eskuragarri dago Nafarroako Ogasunaren webgunean:

http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Hacienda/El+Organismo/Memorias/

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CIE-00001. Pandemian zehar maskarak eta osasun-materiala erosteari eta banatzeari buruzko ikerketa-batzordea

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2024ko martxoaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, ezetsi egin du Nafarroan pandemian zehar maskarak eta osasun-materiala erosteari eta banatzeari buruzko ikerketa-batzorde bat eratzea. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, ezespena argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
